



HIRIAK (1.zatia)

Gutxienez 7,5 atera behar duzu gainditzeko ariketa hau

Markatu zuzena ala okerra den testu bakoitza

Hiri deritzo 150 biztanle/km²-tik gorako biztanleria-dentsitatea duen lurraldeari. Lurralde horretan, nagusi dira lurzoruaren erabilera artifizialak. Hiri-eremu deritzo herri mota bati.

(1).....

Hiria beste mota batzuetako herrietatik bereizten da, hartan lurzoruaren erabilera artifizialak nagusi direlako, hala nola etxebizitzak, biltegiak, fabrikak, saltokiak eta abar.

(2).....

Hiri-eremu deritzo 150 biztanle/km²-tik gorako biztanleria-dentsitatea duen lurraldeari. Lurralde horretan, nagusi dira lurzoruaren erabilera artifizialak. Hiri deritzo hiri-eremuan dagoen herri mota bati.

(3).....

Hiri-eremuan «hiri» gisako administrazio-estatutua da nagusi.

(4).....

Beste herri batzuen aldean, hiriak desberdinak dira, biztanle kopuru handia dutelako, lurzoruaren erabilera artifizialak nagusi direlako eta «hiri» gisako administrazio-estatutua dutelako.

(5).....

Beste herri batzuen aldean, hiri-eremuak desberdinak dira, biztanle kopuru handia dutelako, lurzoruaren erabilera artifizialak nagusi direlako eta «hiri» gisako administrazio-estatutua dutelako.

(6).....



Irakurri, adi adi, hiri baten funtzioei buruzko funtzio pareak, eta markatu aukera zuzenak.

Industria-funtzioa eta kultura-funtzioa.	(7).....
Hezkuntza-funtzioa eta irisgarritasun-funtzioa.	(8).....
Osasun-arloko funtzioa eta funtzio pedagogikoa.	(9).....
Zerbitzu-funtzioa eta teknologia-funtzioa.	(10).....
Industria-funtzioa eta funtzio politiko eta administratiboa.	(11).....
Turismo-funtzioa eta erlijio-funtzioa.	(12).....
Bizileku-funtzioa eta merkataritza-funtzioa.	(13).....
Lorategi-hiriaren funtzioa eta finantza-funtzioa.	(14).....